

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

IDIAZABALGO UDALA

2022. urterako ordenantza fiskalen hasierako onarpena.

Idiazabalgo Udalbatzak, 2021eko azaroaren 4ean egindako ohiko bilkuran, besteak beste, erabaki du, aho batez, 2022. urterako Zerga- eta Prezio Publikoen Ordenantzaren aldaketa hasieraz onartzea.

Espedientea jendaurreko erakustaldian jartzen da, Gipuzkoako Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru-Arauko 16. artikuluan xedatzen dena betetzeko, iragarkia komunikabide ofizial honetan argitaratuz, honako arau hauek xedatutakoari jarraituz:

- Aztertze leku:* Idiazabalgo udaletxeko idazkaritzan.
- Aztertze eta bere kasuan iradokizunak zein ohartarazpenak aurkezteko epea:* Hogeita hamar (30) lanegun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik, 8:00etatik 15:00etara.
- Erreklamazioak jartzeko aukera dutenak:* uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak 17. artikuluan aipatzen dituen interesdunak.
- Aurkezteko tokia:* Udaletxeko sarrera-erregistro orokorrean eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, 16.4 artikuluan zehaztutako tokietan.
- Erreklamazioa jarriko dion organoa:* Udalbatza.

11/1989 Foru Arauaren 16.3 atalak xedatutakoari jarraituz, jendaurreko erakustaldi honen epean inolako erreklamaziorik edo ohartarazpenik aurkeztu ezean, behin-betikoz onartutaz hartuko da erabaki hori, beste inolako erabaki berri bat hartu behar gabe.

Idiazabal, 2021eko azaroaren 5a.—Alkatea. (7191)

AYUNTAMIENTO DE IDIAZABAL

Aprobación inicial de las ordenanzas fiscales para el año 2022.

El Pleno del Ayuntamiento de Idiazabal, en sesión ordinaria celebrada el 4 de noviembre de 2021, ha acordado, entre otros, por unanimidad, la aprobación provisional de la modificación de las Ordenanzas Fiscales y de Precios Públicos para el año 2022.

El expediente se somete a información pública en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 16 de la Norma Foral 11/1989 de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, mediante publicación de anuncio en este medio oficial todo ello conforme a las siguientes reglas:

- Lugar donde se hallan de manifiesto:* Secretaría del Ayuntamiento de Idiazabal.
- Plazo para examinarlos y en su caso para formular las sugerencias o alegaciones:* Treinta (30) días hábiles contados a partir del siguiente hábil a la inserción de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa en horario de 08:00 a 15:00.
- Legitimados/as para reclamar:* Los/as interesados/as indicados en el artículo 17 de la Norma Foral 11/1989 de 5 de julio.
- Lugar de presentación:* En el registro general del ayuntamiento y demás lugares que señala el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
- Órgano ante el que se recurre:* Pleno.

Conforme a lo dispuesto en el artículo 16.3 de la Norma Foral 11/1989, una vez transcurrido el plazo legal de información pública sin que se haya producido reclamación u observación alguna, se tendrá por definitivo el acuerdo adoptado, sin necesidad de nuevo acuerdo.

Idiazabal, a 5 de noviembre de 2021.—El alcalde. (7191)